



astola

ikerketa eta historia

DURANGALDEKO URTEKARIA

13.zk 2019 • 5€



DA!

53. DURANGOKO AZOKA

2019ko abenduaren 5etik 8ra



Astola iritzi orori zabalik dagoen aldizkaria da, horrek ez du esan nahi artikuluen sinatzaileekin bat datorrenik.

Erredakzioa, publizitatea eta administraritza:

Gerediaga Elkartea
Larrasoloeta, 3 48200 Durango

Tel. 94 681 80 66

Faxa: 94 621 80 23

E-mail: gerediaga@gerediaga.eus

www.gerediaga.eus

Koordinatzailea:

Txelu Angoitia

Erredakzio kontseilua:

Jose Mari Uriarte, Jon Irazabal,
Izaskun Ellakuriaga, Nerea Mujika

Argazkia:

Txelu Angoitia

Publizitatea eta administraritza:

Arantza Atutxa

Dokumentazioa eta banaketa:

Esther Garcia, Esther Soto

Diseinua eta maketazioa:

Biko komunikazioa (Durango)

Inprimategia: Gertu koop.

Lege gordailua: SS-1525-07

ISSN: 1888-234X

© Argitalpen honena,

Gerediaga Elkarte 2019

© Testuak eta argazkiak, egileenak

AURKIBIDEA

Durangaldeko urtekaria. 2019

astola



20 | PAPEREZKO HITZAK. DURANGOKO ALDIZKARIAK

XIX. mendean "El Durangues" aldizkaria sortu zenetik, Durango aldizkako argitalpenetan haztegi emankorra izan da. Trantsizioko urteak aldizkarien loraldia izan ziren, kultur arloko zein informazio hutsezkoak izan. Ibaizabal, Txistu y Tamboliñ edota Idibem aipatzen dira.

Joseba Gorostiza



8 | LABURREAN

Albiste laburren atalean hiru efemeride nabarmentzen dira. Berbaro Elkartearen 30 urteak, Durangoko "anbulategi zaharraren" mende erdia eta Culturalaren 100. urteurrena.

Gainera, Elorriion memoria historikoa berreskuratzeko helburuarekin sortu den Laumunarieta elkartea eta "Deustuko tigreak" Durangorekin duen harreman bitxia ere albiste dira.



38 | LOS BUITRES LEONADOS EN EL PARQUE NATURAL DE URKIOLA

Tras estar al borde de la extinción a mediados del pasado siglo, la población de buitres se ha recuperado en nuestras peñas.

Sin embargo, no todo son buenas noticias, ya que a nivel mundial su situación es muy complicada.

Iñigo Zuberogoitia

AURKIBIDEA I astola



54 | KIRIKIÑO ETA MONTEJURRA. GUDARIAK ETA ERREKETEAK DURANGALDEAN

1936ko gerraren ondorioz, gure euskaldea indar militar biren arteko borroketarako eszenatoki izan zen. Bi aldeak, gainera, esanahi sinboliko handikoak: batetik, Kiriñó batailoia, Durangaldeko gazte asko kide izenekoa, eta bigarrengana Montejurrako tertziola, Nafarroako karlistek osotuta.

Iñaki Goiogana



86 | ALFABETATZE EUSKALDUNTZE MUGIMENDUA DURANGALDEAN 1964 - 1979

60ko hamarkadaren hasieratik, euskal kulturaren eta euskararen berpizkunde izan zen eta horrek bere irakaskuntza ekarri zuen. Milaka lagunek parte hartu zuten loraldi horretan, batzuk ezagunak, besteak anonimotasunetik. Hauxe izan zen Durangaldeko historia.

Marisa Barrena

68 | LA MIRADA DEL ALEMÁN LA FOTOGRAFÍA DE RICARDO DOLIWA.

Nacido en Berlín en 1901 y tras instalarse en Durango en 1931, Ricardo Doliwa fotografió nuestra comarca durante las décadas de 1940 y 50 del siglo XX.

Su condición de alemán y su posición social propiciaron que sus fotografías tuvieran una mirada especial sobre los paisajes y las personas con las que se encontró.

Txelu Angoitía





100 | LOS MARZANA EN LA EDAD MEDIA

Durante los siglos XIV y XV, apoyados en las armas, la connivencia de la iglesia y su política de alianzas, los señores de Marzana lucharon por el dominio de Durangaldea y objetivos más ambiciosos.

El punto álgido de estos enfrentamientos entre bandos lo constituye la batalla de Elorrio, donde según Salazar se reunieron más de 6000 combatientes.

Juan Manuel González Cembellín



146 | KOFRADIAK GAUR EGUN

Erdi Aroan, auzoetan elkar lagundu eta amankomuneko ondasunen kudeaketarako sortu ziren kofradiak.

Gaur egun,urretan eta Elorrión kofradietako batzuk euren funtzioko mantentzen jarraitzen dute.

Mikel Onandia



116 | BARRUKO IBILBIDEAK

Kulturarekin loturiko bost gonzidatuk bidezidorretatik eramango gaituzte, sakoneko bidexka apaletik. Paisaiak ikusgarriak alde batera utzita, leku xumeetara eta intimoetara begiratzeko gonzibidea egiten digute, eurentzat oso bereziak diren bazterretara gertutzeko keinua.

130 | DE EZKURDI A ETXEZARRETA. EL ARTE CONTEMPORÁNEO EN DURANGO

Inauguradas en 1970, las Salas Municipales de Cultura convirtieron en los años 70 y 80 a Durango en un referente del arte de vanguardia en Euskal Herria.

Esas mismas salas y su actividad expositiva fueron el germen del Museo de Arte e Historia de Durango que se abrió en 1984

Mikel Onandia Garate



160 | BARTOLOMÉ DE ERCILLA REMENTERÍA. LA OLVIDADA BANDA SONORA DE DURANGO

La vida y obra del músico durangués Bartolomé Ercilla (1863-1898) está rodeada de un halo de misterio.

Con ocasión del 120 aniversario de su muerte, se han puesto en marcha varias iniciativas para reivindicar su figura.

Luis Orduña Ridruejo

Bizkaia Aurrezki
Kutxaren
Durangoko
sukurtsal zaharra,
1927. urtean eraikia
Diego de Basterra
arkitektuaren
diseinuaren arabera.





BBK
BETIDANIK
DURANGALDEAN

bbk =

LABURREAN | 1

laburrean

Durangoko Culturalak 100 urte betetzen ditu 2019an. Hain zuzen, 1919ko apirilaren 11n, Ignacio Letamendia presidente zela, Artekaleko egoitza inauguratu zuen "Sociedad Cultural Deportiva de Durango"-k.

100 urtez zuri-urdin



Durangoko kirol lagun talde batzuen lanari esker sortu zen kluba. Futbol partiduak Ezkurdiosten jokatzen zitzuten, frontoi zaharraren atzean. Anbotomendi (igeltseroen taldea), Ederri, Margarita, Arrastraka (margolarien gremiokoek osatutakoa), Danok Bat edota Tabira izeneko taldeak ziren.

Futbol talde modura 1921. urtean eratu zen eta jokatzeko, kolore zuri-urdinak elastikoan eta kolore baltza praketan aukeratu zitzuten. 1922-1923 urteko liga txapelketa ofizialean hasi zuen Culturalak bere futbol ibilbidea.



Taldea, 1953-1954 denboraldian.

Futbol zeliaiari dagokionez, Iurreta Ertzimingo gane futbol zeliaian jokatzen hasi zen taldea. Gero, 1925ean, futbol zelai berria egin zen San Fauston eta gerra ostean, 1949an, Tabirako futbol zeliaia estreinatu zen.

Culturalaren lehenengo urteetan Zabala, Oceja, Garate, Sarmanton edota Mangas lako izenak ezagun egin ziren. Gainera, Culturaleán ezezik, sasoiko klub garrantzitsuetan ere jokatu zuten; Athletic Club, Zaragoza edota Hércules.

Futbol taldearen lorpenen artean 1943-1944 urteetako denboraldia nabarmentzekoa da. Lehenengoz, Estatu mailako kategoriara igotzea lortu zuen taldeak. Hala ere, laister jaitsi zen Lehen Maila Erregionalera. Estatuko futbol txapelketako kategoria eta mailatan aldaketak izan dira. Durangoko Culturalari dagokionez, Bigarren Maila B kategorian zazpi denboraldi, 39 denboraldi

Hirugarren Mailan – horietako 3 txapeldun – eta gainontzeoak maila erregionaletan jokatu dute durangarrek. 2018-2019 denboraldia Bigarren Maila B-ko bigarren taldean jokatzen du Durangoko Culturalak.

Baina, talde bakar bat baino gehiago da Durangoko Culturala. Oinarrizko futbolean hainbat talde daude: jubenilak, kadeteak, infantilak... Goi mailako taldeentzat harrobia izaten jarraitzen du Tabírak.

Durangoko Culturalaren 100 urteetan sakontzeko badira erreferentziazko bi liburu: Vicente Zavalak idatzitako “Sociedad Cultural Deportiva Durango (1919-1949)” eta Ignacio Azkunek argitaratutako “Bodas de Diamante de la Sociedad Cultural Deportiva Durango”.

LABURREAN | 2

Berbaro Elkarteak, 30 urtez ereiten eta eragiten

Berbaro euskara elkartea 30 betetzen ditu 2019an. 1989. urtean, ilusioz eta anbizioz, Durango euskalduntzeko pausuak ematen hasi zen durangar talde bat. Praktikotasunetik, sare bat, komunitate bat eraiki, eta euskaraz bizitzeko aukera ematea zen helburua: "Ez da nahikoa euskara jakitea. Iraungo badu, nonahi eta noiznahi erabili behar da"

Arrasate Euskaldun Dezagun elkartea orduko lehen pausuak arrakastaz emanda zituen Gipuzkoa mendebaldean. Politikoki egoera oso gatazkatsua bazeen ere, euskarak sortu zuen adostasunerako esparru bat eta hortik abiatu zen Berbaroren proiektua.

Hasierako giro horrek hauspotu zituen lehen urteetako pausuak. Hazkunde handia izan zuen Berbaroren egitasmoak denebora gutxian: haur literatura aretoa, aisialdi taldea, ERAZ astekaria, Berbaro taberna... elkartearren egitura zehaztu eta finkatu egin zen lehen urteetan.



⌚ Durangon euskalgintzan dabiltzan taldeak GUKA osatzen dute.



Kultur sorkuntzarako gunea ere izan zen Berbaro taberna.



Beste erakunde batzuekin ere harremanak estutu ziren. Eta beste euskara elkarteko batzuekin, 1996an, Euskara Elkartearen Topagunearen sorrean parte hartu zuen Berbarok.

Haur Literatura Aretoak Berbarok beste urte ditu. Haur Hezkuntzan eta Lehen Hezkuntzan irakurketarekiko zaletasuna bultzatzea, orokorrean, eta literatur lan gomendagarriak lantzea du oinarri. Aretoaren ibilbidearen hasieratik Durangoko Azokaren eskaintzara batu zen. Gaur egun, haur eta familiak euskal kulturara batzeko gunea da. Baino Azokatik kanpora ere, adin bakoitzean, formatu ezberdinetan, gazettekoak beraien interesguneetatik irakurketara hurbiltzen ditu.

ERAZ aldizkaria argitaratzeko helburuarekin Durangaldeko Herri Komunikabideak sortzea, bestetik, hizkuntzan eragiteko modu eraginkorra izan da. ERAZek lehenengo eta gero Anbotok, ohitura ez zegoen jende asko euskaratik sortutako sare komunikatibo baten parte egin du.

Taberna, berriz, autofinantzazio beharrizanetik sortu zen. Durangoko, Santa Ana Plazan, hala ere, euskaltzaleentzat erreferentziak leku bat izatera heldu zen eta, formatu txikian, kultur sorkuntzarako gunea ere izan zen. Hango ilusiotik Plateruenera salto egin zuen egitasmoak orain dela 15 urte. Dena dela, oraindik ere indargune izateko bidean jarraitzen du. Aukera asko izan arren, babes nahikorik ez duela uste dute Plateruenerako arduradunek. Herri ekimeneko proiektuak karga moduan hartu beharrean, eskaintzen dituen aukerak aprobetxatzen ez jakitea egozten diete, batez ere, erakundeetako ordezkariei.

Berbaroren projektuan, baina, haur eta gazteei zuzendutako aisiaaldiak izan du hasieratik pisu handia. Elkartetik bertatik egiten dituzten udalekuetatik harago, zerbitzu enpresa moduan ere eskaintza egiten du eta eskualdeko herrietako udalekuetan ere sarri dinamizatzale lanak burutu ditu. Beste horrenbeste, euskararen erabilera plagintzakin. Gaur egun, Durangoko Udalarekin eta Durangoko Amankomunazgoarekin ditu lan esparru horretako hitzarmenak.

Lanaldi osoan dabiltsan zortzi langile ditu gaur egun Berbarok: kudeatzaile bat, administrari bat, gazte arloko hiru teknikari eta euskara zerbitzuetan lanean dabiltsan hiru lagun. Horri, aisiaaldi arloan aldizka lan egiten duten begiraleak gehitzen zaizkie. Hain zuen, begirale horiek funtsezkoak dira Berbaroren egitasmoan. Eragile eta hartziale direlako aldiberean. Euskaraz bi-

zitzeko aukera bateko partaide aktibo direlako, eta sare bat osotzen dutelako.

30 urteko ibilbidea jai giroan ospatzen dabiltsa Berbaron, ohikoak dituzten ekintzak eta urteurrenerako bereziki prestatutako kultur ekitaldiekin. Dena dela, urtemuga borobila bi hausnarketa egiteko aprobetxatu nahi dute. Batetik, jendea digitalki harremantzen dela ikusita, euskarak zer leku izan dezakeen eta Berbarotik internetetik zelan eragin daitekeen hausnarketa bideratu dute. Bigarrena, 2012. urtetik GUKA izenarekin Durangoko euskalgintzako beste eragile batzuekin egin nahi dute hausnarketa. Lehenagoko “mugimendu” izaera berreskuratu eta euskaraz bizitzeko lekuak sustatzeko ahaleginean jarratzeko.

Izaskun Ellakuriaga




LABURREAN | 3

Durangoko Anbulategi zaharrak 50 urte

1969. urteko martxoaren 2an zabaldu zituen lehenengoz Durangoko anbulategiak atea. 50 urteko ibilbidean, osasun arazoak izan dituzten herriarrak artatzeari utzi barik, hiru izan dira kudeaketan izan dituen aldaketa nagusiak.

1 1993an gertatu zen aldaketarik nabarmenena. Ordura arte, osasun zerbitzu guztiak, lehen arretari zuzendutakoak eta kontsulta espezializatuak, elkartuta zeuden Herriko Gudarien kaleko eraikinean. Aurrerantzean, bi anbulategi izango zituen Durangok.

Zabaldu zenetik, anbulategi zaharra sasoiko gizarte-segurantzako Aurreikuspenen Institutuen sareko zentrua izan zen. Baina 1998an, bigarren aldeketa garrantzitsua izan zen: Galdakao-Usansoloko Ospitaleko anbulategiaren sarera batu zen. 2014tik, Barrualde-Galdakao Erakunde Sanitario Integratuan (ESI) dauden 78 zentruetako bat da.



Anbulategiaren aurrekaldearen planoa. Durangoko Udal Artxiboa



A punto de acabar, I de marzo, inauguraré a funcionar en Durango un nuevo Ambulatorio del Instituto Nacional de Previsión, cuya magnífica edificación pondrá verde la fachada. El costo del centro ha supuesto una inversión, entre el edificio y el instrumental médico, de cerca de treinta millones de pesetas.
(Pérez Sol.)

La Gaceta del Norte. 1969

Gaur egun 100.000 bizilaguneri ematen zaie zerbitzua: Amorebieta-Etxano, Durango, Markina, Ondarroa eta Abadiño-Berriz-Zaldibar-Atxondo -Elorrioko lehen arretarako eremuan. Guztira, 40 pertsonek osatzen dute lantaldea, eta 14 espezialitate kirurgia-mediku daude.

50 urtetan asko aldatu da anbulategi zaharra, eraikina bera da, baina lan egi-teko bitartekoak eta sistemak dexente aldatu dira.

Izaskun Ellakuriaga

LABURREAN | 4

Deustuko Tigrea

Bilboko irudi emblematicoetako bat Deustuko Erriberako eraikinean ikusi daitekeen tigre mehatxatzailearen eskultura da, Juan Jose Muñoz Mendizabal (Deusto 1895- Hondarribia 1967) industria gizonaren uhal lantegikoa. Felino bikainak irudikatzen duen enpresak erlazio zuzena izan zuen Durangorekin, herri horretan egon zelako lantegi garrantzitsuena, eta tigrea izan zen bere irudi korporatiboa.



Uhal lantegia Durangoko Madalenosten.

Durangon, Madalenoste auzoan, XIX. mendearren hirugarren laurdenean, arma lantegi bateko pabiloiak zeuden. Fabrika hori larrua ontzeko lantegi bilakatu zen, eta orduan agertu zen Deustuko industria gizona.

1940an, Pedro Ispizua arkitektoak (Bermeo 1895-Bilbo 1976) J. J. Muñoz Mendizabal ordezkatuz, baimena eskatu zion Durangoko Udala-

ri herri horretan zeukan larrua ontzeko lantegia berreraikitzeko, zaharberritzeko eta handitzeko. Transmisió uhalen, alanbrinaren eta beste produktu batzuen fabrikaziorako "El Tigre" etxeko lantegi nagusia izango zena osatuko zuten hormigoizko pabiloiak altxatu ziren. Aldi berean, Ispizua bera arduratu zen enpresaren bulego nagusiek eta erakusketa Deustun egiteaz; hura ere hormigoi armatuzkoa, arrazionalista, tigre eza-

FÁBRICA DE CURTIDOS-CORRAS Y BARNICES
EN
DURANGO (VIZCAYA)



FÁBRICA DE CURTIDOS
EN
DEVA (GUIPÚZCOA)

J.J. MUÑOZ MENDIZABAL

ÚNICO FABRICANTE
DE LOS PRODUCTOS
"ALAMBRINA"
SUSTITUTO DEL CRISTAL

"CIANA"
BARNIZ ESPECIAL
PARA AVIACIÓN

"DIELECTRÓN"
BARNIZ AISLANTE
ESPECIAL PARA EL
RAMO DE ELECTRICIDAD

Oficinas centrales: PLAZA DE ZUMALACARREGUI - DURANGO
Ayuntamiento de Durango
"Central Olazárra"

Direc. Teléq. ALAMBRINA Telefono 25 Aportado 14
En Bilbao: Cuenta Corriente:
Banco de Bilbao
Banco Gipuzkoano
Banco Urquiza Vizcaina
Banco Hispano Americano
Banco Central
Durango - Banco Urquiza



 Tigrea Deustun.

gunak errematatzen zuen dorretxo batekin. Tigrea, hormigoizkoa eta 9 metrokoa, Joaquín Lucarini (Fontecha 1905- Burgos 1969) eskulturgileak egin zuen 1943an.

Durangoko "El Tigre" lantegiak XX. mendearren erdialdera arte jarraitu zuen lanean eta, ixtean, bertako instalazioak bertan behera geratu ziren hainbat urtez. Ondoren, dantzaleku bilakatu zen,

"La Pantera Rosa" (1972) lehenengo eta, urte batzuk geroago, "Cambridge Park" (1990). Azkenean, eraitsi eta etxebizitzak egin ziren bertan.

Deustuko eraikina zaharberritu eta luxuzko apartamentuak egin ziren, baina tigre ahaltsuak goian jarraitzen du.

Jose Mari Uriarte

LABURREAN | 5

Memoria historikoa Elorriion berreskuratzen

Bi urte dira Elorrioko Laumunarietako 1937 Memoria Historikoa Elkartea lanean hasi zela. Helburu nagusia, gerraren ondorioz Elorrioko memoria historikoa berreskuratzea eta aitortzea da. Zeharkako helburua, berriz, berdintasuna, euskara eta hezkuntza.

Helburu nagusia bete ahal izateko, bidean asko dira egitekoak: Artxibo bibliografiako osotzea eta soinu artxiboa berreskuratzea, arrasto fisikoak identifikatzea, testigantzak jasotzea, gertatutakoa ikertzea eta guzti horren zabalkundea egitea. Elkarteak eman zituen lehen pausuak elkarriketak grabatzea eta taldea legeztatzea izan ziren. 2017ko abenduaren 12an lortu zuen hori Laumunarietak.

2018ko martxoan elkartearen aurkezpena egin eta Memoria Historikoaren II. Astea egin zen. Bi hitzaldi, bombardatutako guneetara bisita gidatuak eta Intxortako frontera bisita antolatu ziren. Urte bereko maiatzean, berriz, 1936-1946 urte tartean Elorrioko gertaera eta errepresio sozial, politiko, kultural zein ekonomikoa aztertzeko asmoz, ikerketa beka baten deialdia egin zuten. Eta abenduan, horma-irudi bat egin zuten Arriola antzokiaren iparraldeko horman.



Laumunarietak antolatutako erakusketa Iturri Kultur Etxean.

2019an ere Memoria Historikoaren Astea egin da martxoan: bi hitzaldi eta horma-irudiaren ondoan martxoaren 31ko ekitaldia egin dira. Gerra zibilari buruzko erakusketa Iturri Kultur Etxean, hitzaldiak, bisita gidatuak DBH 4. mailako ikasleentzat eta antzerki obra batek osotu dute egitarau osoa. Gerra Elorriion eta memoriaren berreskurapena izan dira ekintza guztien ardatza.



2019ko Memoria Historikoaren astea.



Laumunarieta Elkartearen egoitza.

Aurrera begira bekaren luzapen bat egiteko asmoa dauka Elorrioko Laumunarietako 1937 Memoria Historikoa Elkarteak. Euskal Herritik kanpo dauden dokumentuak eskuratu eta amaitutakoan liburu bat argitaratuko dute.

Orain arte egin diren ekintzak Elorrioko Udala-ren eta Gogora Instittuaren diru laguntzaz eta herriko jendeari esker izan dira. Gainera, hasieran sei bat lagun ziren elkartearen eta gaur egun hamar bat batzen dira.

Laumunarieta Elkartea

DURANGALDEAN
EUSKARAZ
BIZI.





Durangoko Merinaldearen
Amankomunazgoa
Mancomunidad
de la Merindad de Durango





Joseba Gorostiza

Paperezko hitzak.

"Durango idatzizko
komunikabideen haztegi
emankorra izan da".



XIX. mendearen amaieran *El Cuartel Real* (1873), el *Boletín del Señorío* (1874) edo *El Durangués* (1881) argitalpenek argia ikusi zutenetik, asko izan dira Durangon argitaratu diren aldizkariak, egunkariak edo inprimatutako komunikabideak. Eta, zelan ez, euren aldekoak eta kontrakoak izan dituzte. Argitalpen horietako batzuen eta euren edukien azterketak informazio egunerokotasun hori urteetan zehar gogora ekartzeko aukera ematen digute. Era berean, komunikabide horien bitartez adierazten zuten sorkuntza jarduera emankorraren erretretua zirriboratzeko aukera ere bada.



Erregimen frankistaren amaieran, alderdi politikoek legeztapenarekin eterri zen irekiera politikoa, baina batez ere, adierazpen askatasuna. 70eko hamarkadaren amaierara arte nagusi zen kolore bakarreko informazioa apurtzen zuten argitalpen berriatarako giro paregabea izan zen.

Testuinguru horretan sortu zen **Ibaizabal**, 1979ko maiatzean, Gerediaga Elkartearen babespean sortutako aldizkari elebiduna. Dena den, esan behar da bertan agertzen ziren testuen arduradun bakkarak egileak zirela. Lehenengo zenbakiaren 44 orrialdeetan hainbat motatako artikuluak txandakatzen ziren: auzoen arazoei buruzko artikulu erabat informatiboak; lurretaren anexioari buruzko


erreportajeak; gai orokorrei buruzko gogoetak, Bizkaiko metalaren hitzarmena, adibidez, edo sasoi gatazkatsu haietako egoera politiko eta sozial kora-pilatsuari buruzkoak.



Andoni Barreña, Jose Julian Bakedano, Joseba Sarrionandia, Jose Enrique Urrutia Capeau, Imanol Larriaga, Joseba Aizpurua, Jose Luis Lete, Jose Mari Uriarte... ziren **Ibaizabal** aldizkarian, ezizenak erabiliz, artikuluak argitaratu zituzten egileetako batzuk. Aldizkariaren helburua “Durangon eta bere eskualdean arnasten zen kultur hutsunearen parte bat betetzea...”. Egile horietako hainbatek hurrengo urteetan agertu ziren beste argitalpen batuetan ere hartu zuten parte.

IBAIZABAL

DURANGALDEKO ALDIZKARIA
SEIGARREN ZENBAKIA
1.980ko URRIA

Revista del duranguesado
Número siete.
Octubre de 1.980





Euretakoren batek gogoratzen du oraindik 1.100 ale inguru saltzen zirela, 10.000 pezeta inguru lortuz. Diru horrekin, erredaktoreek afaria egiten zuten Soloa jatetxean. Mahaiaren inguruan hurrengo zenbakien edukiak eztabaидatzen ziren. Zenbakien aldizkakotasuna hilabete biko eta bost hilabete artekoa zen. Orrialde kopurua ere ez zen beti bera, 44 eta 80 orrialde arteko zenbakiek izan ziren.

Itxuraz zuen joera ideologikoa zela eta argitalpen horrek jasotzen zituen kritikak hain garrantzitsuak zirenez, 1980ko martxoari zegokion 6. zenbakien editorialean, hau adierazi zuten: "batzuen iritziz agian errepresiozko gertakari jakin batzuen hiperpolitizazioan zehatzuko den joera hauteman daiteke (...) baina horren zergatia ez da inolaz ere ideologia jakin baten defentsa, gure Merinaldea osatzen duten pertsonen eta taldeen askatasun pertsonala eta adierazpen askatasuna baizik".



1983ko abenduan, **Ibaizabal** aldizkariaren azken zenbakia kaleratu eta urte bira, **Mikeldi** aldizkariak hartu zuen Durangon gertatzen ziren albisteetan zentratutako informazioaren errelebua. Bere muga geografikoa ez zen kasualitatea, izan ere, Durangoko Udalaren babespean sortutako argitalpena izan zen eta "Udal aldizkaria" izeña zeraman.

Lehenengo zenbakiko 52 orrialdeek alkateak sinnatutako agurra jaso zuten (Ander Salaberria zen, bere izena agertzen ez baten ere) eta hau aitor-tzen zuen: "Udal aldizkari baten bitartez zuengana lehen aldiz zuzentzeko poza daukat. Erditzea luzeegia izan da baina, azkenean, hemen dago **Mikeldi** aldizkaria". Horrez gain, irakurleen aldetik "...iradokizunak, kritikak, etab." itxaroten ziuela adierazten zuen, "ahal izanez gero, kontrastatuak eta kolektiboak...".

Argitalpen ugari egotea gogoetarako arrazoia zela zirudien aldizkaria egiten zutenentzat, eta, "Eritzia-Opinión" sekzioan, aldizkariaren arduradunek "Beste aldizkari bat?" galdeztzen zioten euren buruari.


Aldizkariko kideek, bertan parte harteko Udala-ren gonbidapena jaso zuten kazetaritza ikasleek edo lizenziatuek, idatzi zituzten testuen artean, Durangoko Azokari, drogei edo langabeziari buruzko monografikoak zeuden. Gai horiekin bate-rra, hezkuntzarekin, udal albisteekin erlazionatu-tako garai hartako testuak, eta hiriari eta bertako jendeari buruzko testu historikoak zeuden.

1984ko ekaineko hirugarren zenbakiak, "**Txistu y Tamboliñ**... y otras cosas de las Vascongadas" aldizkariaren editorearekin elkarritzeta bat jasotzea zeukan aurreikusita, baina bertan behera geratu zen, "Udaleko Kultura Batzordearen zentsu-ra" zela eta.



Amaieraren hasiera izan zen, hurrengo zenbakien editorialean, Adolf Hitlerren bi argazkik lagunduta gonbidapena egiten zitzaielako “a los durangueses de pro, claro” pozik egotera “pues ya con su dinero no volverán a financiarse más números

de tan execrable publicación”. Izan ere, hasiera battean 50 pezeta balio zituen aldizkaria 75 pezetara igo zen laugarren zenbakian, eta 100era azken bietan. Gainera, zenbaki horien orrialde kopurua, ohiiko 52 edo 56etatik 36 edo 40ra murriztu zen.



Mikeldi aldizkariaren
erredakzio kontseilua.



Aipatutako **Txistu y Tamboliñ...**, aldizkaria literatura sorkuntzarako oasia zen, bere erabateko adierazpidean. 1983ko azaroko lehenengo zenbakaren ondoren, hurrengo zenbakietan azpi-titulua aldatu egin zuen, "y otras cosas de las Vascongadas" jarri beharrean, "y va, le mata y vuelve", "y Euskadi el país menos movido: aquí el que no está parado está detenido" edo "y aquí se mata a quien haga falta" jarriz. Urtean behin kaleratzen zen. Lau-garren zenbakiak 1986an ikusi zuen argia, eta etenaldi baten ondoren 1990ean berriro sortu eta beste hiru zenbaki kaleratu zituen.

Mota guztiak eskuetatik sortutako testuen ezaugarri nagusia, sorkuntza eta pentsamendu askatasunari bidea libre uztea zen, eta horiekin ba-

tera, mota guztiako gaiak ukitzen zituzten marraskiak, poesiak eta kontakizun laburak zeuden. Aldizkariko arduradun, berriz, Iñaki Barañano, Andoni Mujika, Jon Odiaga, Edorta Barruetabeña eta Jesus Mari Arruabarrena lehenengo sasoian izan ziren, eta Txetxus Sarriónandia, Xabi Arrinda eta Josu Unzueta bigarrenean.

Aldizkariaren edukiek ez zuten inor hotz uzten eta, hori dela eta, polemikaren bat eragin zuen. Lehenengo zenbakian, osagarri gisa, afixe bat jaso zuen, Leonardo da Vinciren Gioconda gerritik behera lutzatzen zuen "gehigarriarekin". Horrek argi eta garbi erakusten zuen lankidetza batzuen ironiarako, txantxarako, eskatologiarako, eta baita baldarke-riarako joera ere.



Txistu y Tamboliñ...
y cría cuervos y tendrás muchos



Txistu y Tamboliñ...
y Manolo hazte la cena solo

Behin eta berriro agertzen ziren gaiak, lotsarik gabe-ko elkarriketak edo prostitutekin egindako irudime-nezko solasaldiak, identifikatu zitezkeen edo egileen irudimenetik sortutako pertsonaiak protagonista ziren istorioak, elkarriketaren batekin txandakatzen ziren, lehenengo zenbakian Paco Obregón Geroako kide sortzaileari egindakoarekin, adibidez.

Txistu y Tamboliñ... aldizkariaren berezitasuneta-ko bat, bertako orrialdeetan erabiltzen zen hizkuntza ia erabat euskara zela izan zen. Batuaz idatzitako tes-tuekin batera, tokiko modismoetan oinarrituta ida-tzita zeuden beste batzuk txandakatzen ziren. Ho-rietan, behar bezala irakurri ahal izateko akotazioren bat ere jasotzen zen.




Txistu y Tamboliñ...
y va, le mata, y vuelve



Txistu y Tamboliñ...
y Euskadi el país menos movido:
el que no está parado está detenido.




 Txistu y Tamboliñ aldizkariko kolaboratzaileak.




1993ko apirilean **Eraz** kaleratu zen, DHK-Durangaldeko Herri Komunikabideak-en ekimenez guztiz euskaraz argitaratutako lehenengo burualdea, asteroko maitzasunekoa. 0 zenbakaren zuzendarria Ima Eguren izan zen, baina hurrengo zenbakian jadanik Aitor Sarrionandia hartu zuen kargua bere gain. Hasieratik, **Erazek**, Durangoko Merinaldea osatzen zuten herrietako gaurkotasunari buruzko artikuluak, erreportajeak, elkarriketak eta kronikak eskaintzen zituen.

Lehenengo zenbakian 16 orrialde zeukan eta 6.000 ale inguru kaleratu zituen argitalpen horren bilakaera agerian geratu zen diseinuan zein bertan parte hartzen zuen profesional kopuraren hazkundean, eta baita aldizkariaren buru izan ziren pertsonengan ere. Lehenengo urtearen irailean José Ignacio Arrizabalaga bilakatu zen erre-dakzio buru, eta 1994ko azaroan Izaskun Ellakuria-gak hartu zuen haren lekua. Juanan Hernandezek



ordeztu zuen 1998an, eta postu horretan jarraitu zuen 2001ean aldizkaria desagertu arte, **Anboto** aldizkariari bide emanez.



Kazetaritza artikuluez gain, **Erazek** Durangaldean ezagunak ziren pertsonen lankidetzak ere jasotzen zituen. Roman Berriozabal historiagileak ongi etorría eman zion argitalpenari lehenengo zenbakian, sorkuntzaren garrantzia azpimarratuz: "gaur bertran hasten den bihar-etzi oparoaren mesedetan egindako ahalegin erraldoia".

Iñigo Urkullu lehendakariak ere sinatu zituen kolaborazioak, eta ohikoak ziren Nerea Mujika, Gerediaga Elkarteko presidenteak, Jon Irazabal historiagile eta ikerlariak eta Jose Luis Lizundia Euskaltzaindia-kideak sinatutakoak. Azken horrek, toponimiaz egiten zen erabilera kritikatuz idatzi zuen "Geri-xa, Santixa, Elorriox... nora goaz?" testuarekin piztu zuen polemika, pertsona askok oraindik euren oroinmenean gordetzen duten horietakoa izan zen.

Baina argitalpen batek, politikoki zuzena zenetik aparte zeuden edukiak zirela eta ingurua asaldatu bazuen, hori **Komiklub** komikia izan zen. O zenbakia 1994ko ekainean kaleratu zen, beste argitalpen batzuetan ohiko kolaboratzailea zen Jon Romanen eta Isma Iglesias eta Alex Olabarri artisten



"Komiklub"
aldizkariko kideak.

ekimenez. Sei hilabetez behin euren binetekin "lurrikarak" eragiten zitzuten, sexu ukitua zuten istorioak inolako mugarik gabe lantzen zituztelako, batez ere.

Garai hartako punk izpiritua eta kulturak eta gauzak ikusteko modu bereziak bultzatuta, aldizkariaren sustatzaileek argitalpenarekin lan egitera animatzen zuten lehen zenbaktik, "no te comas tus comics, publícalos" esloganarekin. Iza ere, ha-

margarren zenbakirako, Mazedoniako, Brasilgo eta beste herrialde batzuetako artistek egindako kolaborazioak jaso zitzuten.

Ale bakoitzeko 100 eta 200 pezeta arteko prezioarekin, **Komiklubek** 2000. urtearen abenduan agurtu zituen jarraitzaileak, 14 zenbaki argitaratu ostean. Marrazkilari ezagunen istorioak argitaratu zitzuten, eta, berrikuntza gisa, finantzaketan laguntzen zuten iragarki asko "neurrira" egin zitzuten.



IBIDEM

ARTES Y LETRAS

J. AIZPURUA: *Contra el Mediterráneo / 4 poemas*
 J. JULIAN BAKEDANO: *Sobre Manuel Duque*
 P. AIZORALA: *Sobrevolar una exposición*
 L. ZUGAZA: *Servicios culturales*
 PLATEROS DE DURANGO: *Versos*
 BARRIO LOZA: *El Arco de Santa Ana*



OCTUBRE 1983

DURANGO

NUMERO 1

IBIDEM

ARTES Y LETRAS

J. ARAMENDI: *Berrio-papek dirala eta / Poemak*
 RICHARD FORD: *El decreto de Durango*
 GONZALO DE OTALORA:
*Micrología geográfica
de la Nobe
Merindad de Durango*



NOVIEMBRE 1983

DURANGO

NUMERO 2

IBIDEM

ARTES Y LETRAS

UN VASCONGADO: *Durango*
 J. A. ARANA MARTÍA: *Zubiarte, folklórica*
 PLATEROS DE DURANGO: *Dimaro floraz*
 J. J. BAKEDANO: *Dario de Regoyos en Durango*
 JUAN RAMÓN DE ITURRIZA:
Nacimiento, Patria y Peregrinaciones



ENERO 1984

DURANGO

NUMERO 4

Ibidem. Artes y letras, Leopoldo Zugazak argitaratutako argitalpen ugarietako bat da. Oraingo honetan, 1983ko urritik 1986ko ekaina bitartean argitaratu zuen, ikasturte akademikoaren bederatzi hilabeteen erritmora. Berezitasunetako bat, **Ibidem** multzo bakar gisa aurkezten zela zen, zenbaki batetik hurrengora orrialdeen zenbakiek segida zuten, eta, azkenean, 306 orrialde hartu zituen.

Ibidem, “Durangoren zerbitzura zegoen arte, literatura eta albiste historiko argitalpena” zen, eta bertran, garai hartako sinadurekin batera, beste garai batzuetako artikuluak eta testuak ere kaleratu ziren. Bere edukien artean, kultur ekipamenduei buruzko informazioa ematen zuen, Arte eta Historia Museoaren, Pinondo Etxearren edo San Agustín Kultur Guinearen egitasmoak, besteak beste; hainbat historiagileren testuak berreskuratu zituen, Durangoko Merinaldeari edo Bartolomé Ercillaren figurari, An-

dra Mariko dorrearen berreraikuntzari, baroi garranzitsuei edo Durangoko Villa Tavirako pribilegioei buruzkoak, adibidez.

Zenbaki batuetan, separata gisa, zenbait faksimil gehitzen zituen, adibidez: 1634ko "Micrología geográfica del assiento de la noble Merindad de Durango por su ámbito y circunferencia"; Durangoko Udaletxeko fatxadako pinturak irudikatzen zituen Imanol Larrinagaren jatorrizko lamina; edo "Baños nuevos de Elorrio. Velerín" izenekoena propagandarako liburuxka baten erreprodukzioa.

Kultura orokorrak eta literatur sorkuntzak ere izan zuten euren leku **Orientación Norte** argitalpelean. Oso argitalpen handia zen, 49 centímetro alto eta 34,5 centímetro zabal, hau da, izara formatu izenekoa baino apur bat txikiagoa.

Alejandro Zugazak 1988ko eta 1989ko udaberrien artean argitaratu zituen bost zenbakiek 16 orrialde zituzten. Horietan, udal eta toki informazioa, diskoei, liburuei, poesiari, antzerkiari, pinturari, argazkigintzari, bideoari edo astronomiari buruzko aipamenekin eta erreferentziekin txandakatzen zen.

Bertako historiaren errepasoa

Durangoren eta Merinaldearen iraganarekiko interesa hainbat argitalpenetan islatu zen, José Ramón Díez Unzueta 1981etik 1985era, urtean behin, argitaratu zituen **Cuadernos de Historia Duranguesa** izenekoan, adibidez. Argitaratutako bost zenbakien helburua, "Durangoko gauzak atsegin dituzten bertakoentzat eta arrotzentzat, herriarentzat eta kanpotarrentzat, irekita" egongo zen aldizkaria eskaiztea zen, eta horretarako lehen mailako kolaboratzaleak elkartu zituen, José María de Larracoechea, Vicente Zabala, Manuel Basas edo Gurutzi Arregi, besteak beste.





CUADERNO DE HISTORIA DURANGUESA DURANGOKO KONDAIAREN IDAZLANA



**EUSKAL JAIAK
1886-1986**

Lehenengo zenbakia astero argitaratzen zen **El Durangués** aldizkariaren mendeurrenari eskaini ziotaion. Uste denez, argitalpen hori 1881eko abuztuan kaleratu zen lehen aldiz, eta gutxienez bi urte iraun zuen. Díez Unzueta berak sinatutako erreportajeak adierazten zuenez, F. G. Meras editoreak "un cálido periodismo, vigilante de los problemas y cuestiones ciudadanas de la Villa" egiten zuen.

Bere orrialdeen, 70 inguru, interes iturri nagusia, historia zaleentzat edo hiribilduaren iraganaren aurrean jakin-mina zutenentzat eskaizten zituen datu ugarietan zegoen. Aldizkariaren edukien artean ohi-koak ez ziren gaiak ere lantzen ziren, gastronomiatik arkitekturara, eta baita monumentuak, toponimia, jaiak, pertsona ezagunak edo umeen jolasak edo jolas tradisionalak ere. Azken zenbakien aza-la Euskal Jaien mendeurrenari (1886-1986) eskaini zioten. Edukien artean "Una "fiesta" de aviación en Durango" izeneko artikulu nabarmendu zen.



1970eko eta 1980ko hamarkadetan Historiarekin erlazionatuta kaleratu ziren argitalpenen aberastasunak, informazio produkzio handiari erantzuteko sortutako proiektu ugarek, eta Durangon eta Durangaldean izandako sorkuntza emankortasun handiak eraldaketa garrantzitsua izan zuten denborarekin. Azken 30 urteetan, informazio orokorreko edo kulturaleko egunkariek, astekariek eta aldizkariek, Historiarekin erlazionatutako edo sorkuntza artistikoan zentratutako argitalpenek ia presentziarik ez duten espazioa bete dute. 2018ko uztailean lehenengo zenbakia argitaratu zuen Sor-

ginola gaztetxeko ateneoak argitaratu zuen **Berbaz** literatur aldizkaria, Durangoko Udalak urtero egiten duen **Julene Azpeitia Lehiaketan** sariutako lanen bilketak eta zure eskuetan daukazun **astola**, Ikerketa eta historia urtekaria, dira eremu editorial uniformea apurtzen duten salbuespen es-kasetako batzuk.

Joseba Gorostiza
Kazetaria

ATXONDOKO UDALA



www.atxondo.eus






D3 Arkitektoak

Euskal ondare historikoaren birgaitzean arkitektura bulego aditua, iraunkortasun irizpideak, energia eraginkortasuna eta eskura dauden baliabideak erabiliz.

Bezeroarentzako ahalik eta emaitza hoherena lortzeko helburuarekin, proiektuak lantzen eraikinaren informazio zehatza jasotzen dugu gaur egungo teknika modernoenekin.

Horrek eraikin osoa egoki interpretatzeko aukera ematen digu, elementu historikoekin adeitsuak izanik balioan jartzeko.




D3 Arquitectos

Estudio de arquitectura especializado en la rehabilitación del patrimonio histórico vasco, empleando criterios de sostenibilidad, eficiencia energética y economía de medios.

Con el objetivo de conseguir el mejor resultado para el cliente, empleamos las técnicas más modernas obteniendo información exhaustiva del edificio para la elaboración de los proyectos.

Esto nos permite realizar una correcta interpretación del conjunto siendo respetuosos con los elementos históricos para su puesta en valor.



Elkartegia. Landako 4. Durango
T. 94 681 23 11
info@d3arquitectos.com

d3arquitectos.com

LOS BUITRES LEONADOS EN EL PARQUE NATURAL DE URKIOLA



Iñigo Zuberogoitia





Buitre saliendo de una cueva en Atxarte. Iñigo Zuberogoitia



Buitres campeando con el monte Udalatx al fondo. Jose Mari Uriarte

Cuando nos adentramos por la naturaleza del Parque Natural de Urkiola, sin apenas percibirlos, los buitres dibujan trayectorias en el cielo sobre nuestras cabezas, formando parte de muchos de los escenarios que podemos contemplar. La mayoría de las torres calizas que modelan el Parque cuentan con sus guardianes, vestidos de plumas pardas, que otean el horizonte en busca de alimento. Sin embargo, lo que hoy parece una escena normal, no hace mucho se perdió y necesitó décadas para recuperarse.

En efecto, los buitres fueron aniquilados del Parque a mitad del siglo pasado, cuando se perseguía a todas las aves rapaces por considerarlas "alimañas" y se extendió el uso de potentes venenos para acabar con todo tipo de animales que comiesen carne, además del empleo de nocivas pesticidas que afectaban la estructura de la cáscara de los huevos de las aves y

que impedían el correcto nacimiento de pollos. Fueron tiempos oscuros para la conservación de la fauna. El monte perdió uno de sus elementos clave para el control de enfermedades infectocontagiosas.

Así es, los buitres son aves necrófagas que se alimentan de carroña de otros animales que previamente murieron por diferentes causas. Los cadáveres en el campo son foco de contaminación, tanto por las bacterias y virus que ya poseían, como por los que se pueden generar en los procesos de descomposición. Sin embargo, los buitres poseen un sistema digestivo capaz de digerir y degradar todo tipo de microorganismos, incluidos bacterias tan peligrosas como las del Antrax. Por lo tanto, los buitres desempeñan un servicio ecosistémico único, encargándose de eliminar todo tipo de carroña y evitando la transmisión de enfermedades al ganado y otros animales salvajes.

LA INCUBACIÓN CORRE A CARGO DE AMBOS PROGENITORES, QUE SE TURNAN EN PERIODOS DE TIEMPO SIMILARES PARA CUIDAR CON MIMO AL HUEVO Y, LUEGO, AL POLLO, ASÍ COMO PARA IR EN BUSCA DE ALIMENTO.


Afortunadamente, los buitres y otras aves rapaces fueron protegidos por la Ley en 1966, sumándose más tarde la prohibición del uso de productos derivados del DDT, que eran empleados como insecticidas, además de la prohibición del empleo de estricnina y otros venenos. Tímidamente, los buitres comenzaron a volver a Urkiola, detectándose la primera reproducción en 1989, con seis parejas en el Mugarra. Tardaron décadas en recuperarse, primero muy despacio, dándose un acelerón a finales de los noventa y comienzos de los dos mil, hasta que en 2008 llegaron a un punto en el que la población había alcanzado una cierta saturación del espacio (FIGURA 1). A partir de este momento, las poblaciones de buitres empezaron a estar reguladas por procesos de denso-dependencia (a mayor número de parejas mayor competencia por el espacio y los recursos) y se estabilizaron hasta la fecha de hoy.

Los buitres anidan en paredes rocosas, donde seleccionan cuevas y agujeros naturales protegidos de las inclemencias meteorológicas. Si no encuentran nada mejor, se conforman con repisas protegidas y las parejas nuevas y poco dominantes pueden llegar a criar en repisas expuestas, sin ningún tipo de protección. En Urkiola hay, incluso, dos nidos que están situados directamente en el suelo. Cada pareja mantiene su nido todo el año, pero a partir de diciembre se afanan por arreglarlo, pudiendo detectarse las primeras puestas en Urkiola ya en este mes, aunque lo normal es que la mayoría realicen la puesta en febrero. Cada pareja pone un único huevo que lo incubará durante 54-58 días, pero no todas las parejas ponen huevos todos los años. Los inviernos llu-

viosos y fríos limitan el número de hembras que ponen huevos. La incubación corre a cargo de ambos progenitores, que se turnan en períodos de tiempo similares para cuidar al huevo y, luego, al pollo. El pollo estará en el nido cuatro largos meses y será cuidado con mimo por ambos adultos, quienes se turnan para ir en busca de alimento. Los adultos ceban al pollo con comida predigerida.

La principal y más grande colonia de Urkiola era la del Mugarra, que en 2012 llegó a tener 26 parejas reproductoras, pero en 2018 se quedó en tan sólo 10 parejas que pusieron huevo. A lo largo de los años se han ido creando nuevas colonias que, como la del Mugarra, han ido variando el número de parejas. Hoy en día tenemos localizados nidos en Udalatx, Anboto, Frailie, Astxiki, Alluitz, Untzillatx, Deabruatx, Ezkuagatx, Kobagorri y las paredes de Dima.

En los últimos años hemos visto como los buitres están profundamente afectados por las condiciones meteorológicas. Así, inviernos y primaveras más lluviosas y frías de lo normal, como 2018, suponen la pérdida de huevos y pollos durante la incubación en los nidos menos protegidos. Además, las lluvias continuas limitan las posibilidades de los adultos de campear en busca de alimento, produciéndose el debilitamiento de los pollos, los cuales pierden energía al tratar de mantenerse calientes, debilitándose, enfermando y, finalmente, muriendo. Años más favorables, como 2017, posibilitan, por contra, que un mayor porcentaje de huevos eclosione y, de ellos, muchos pollos lleguen a volar (FIGURA 1).





Pelea jerárquica por la comida. (Arriba) **Buitres soleándose.** (Página derecha). Iñigo Zuberogoitia

Ahora bien, a las duras condiciones que impone la naturaleza, se le suman los efectos de decisiones que nosotros, los humanos, tomamos en nuestra sociedad y que determinan el futuro de estas y otras especies. Así, en el año 2000 apareció la encefalopatía espongiforme bovina, conocida por la enfermedad de las vacas locas. Para frenar en seco su expansión, desde la Unión Europea, se decidió, entre otras medidas, eliminar todo tipo de cadáveres de ungulados domésticos (caballos, vacas, ovejas, cabras, etc.) del campo. Así, en el año 2001 las administraciones vascas se sumaron a esta regulación, aunque no fue hasta 2006 y 2007 cuando se hizo de forma más efectiva. El resultado fue la desaparición de forma inmediata de toneladas de carne del campo. Esto propició que muchos buitres muriesen de hambre, una reducción drástica de los pollos que volaron esos años y, lo más llamativo, un cambio brusco en su comportamiento.

LOS BUITRES POSEEN UN SISTEMA DIGESTIVO CAPAZ DE DIGERIR Y DEGRADAR TODO TIPO DE MICROORGANISMOS, INCLUIDOS BACTERIAS TAN PELIGROSAS COMO LAS DEL ANTRAX.

EL ÉXITO DE LA ESPECIE SE DEBE A UNA GRAN CAPACIDAD DE ADAPTACIÓN Y DE REACCIÓN, Y A SU LONGEVIDAD E INTELIGENCIA.





Buitre adulto en el nido. Iñigo Zuberogoitia



Buitres peleando por la comida. Iñigo Zuberogoitia



Buitre campeando. Iñigo Zuberogoitia



Buitre adulto anillado. Iñigo Zuberogoitia

Por aquel entonces estábamos realizando un estudio de respuesta de los buitres en sus hábitos alimenticios, por lo que el campo se convirtió en un gran escenario de pruebas. Vimos que antes de las vacas locas los buitres solían tardar hasta un día en bajar a un cadáver y apenas te acercabas 250 m huían de inmediato. Tras las vacas locas y la desaparición de comida, el tiempo de reacción se redujo a 19 minutos y la distancia de escape a 52 metros. Además, la comida que antaño no merecía la atención de los buitres, como placetas de ganado parturiente, o pequeños animales muertos, era aprovechada tan pronto la detectaban. Aquí surgió un nuevo problema. Los ganaderos y pastores rara vez habían visto a los buitres bajar a comerse la placenta de una oveja o vaca, y ahora veían como según parían ya estaban bajando, incluso grupos de más de 50 ejemplares. Esto se asoció rápidamente con ataques y en muchas ocasiones se les adjudicó muertes de ganado que yacía inerte en el suelo cuando ellos llegaban. En otros casos, en momento de mucha hambre, los buitres que llegaban a comer una placenta, optaban por tantear las nalgas de la madre recién parida, si está no se movía, o de la cría. En condiciones normales las madres repelen rápidamente cualquier intento de ataque, pero en situaciones de malos partos llegaban a sucumbir, creándose una creciente alarma social alimentada por un nada desdeñable porcentaje de "ruido mediático".

Como en tantos otros casos, la realidad comenzó a transformarse con altas dosis de imaginación, de forma que se comenzaron a escuchar historias de buitres atacando con sus garras al ganado, incluso llevándose ovejas y hasta se alertaba de la posibilidad de que atacasen a niños. Obviamente, esto es del todo falso puesto que los buitres no disponen de garras prensiles como otras rapaces, con las que no pueden tragar una presa, y tampoco están dotados de los mecanismos fisiológicos que les permitan cerrar con fuerza las garras para levantar su presa.

Esta situación propició un nuevo escenario, en el que la gente del campo vive en estado de pre-alerta ante posibles incidencias. Así, en muchos lugares, tan pronto se observa a los buitres descender en grupo al suelo (sinónimo de que han encontrado algo para comer), los ganaderos acuden rápidamente para ver si ha habido un ataque a alguno de sus animales. En la mayoría de las ocasiones los buitres son asustados sin apenas llegar a comer, retirándose rápidamente el cadáver. En consecuencia, los buitres son cada vez más rápidos y cada vez más atrevidos. Esto ha llevado también a un incremento de las muertes de buitres por disparo.

**LOS BUITRES ESTÁN VIENDO REDUCIDAS DRÁSTICAMENTE SUS POBLACIONES.
LOS BUITRES DE URKIOLA, SON UNA PARTE DE LOS POCOS SUPERVIVIENTES DE UN MUNDO CADA VEZ MÁS COMPLICADO.**

En el año 2012 la propia Unión Europea presentó una nueva regulación por la que se permitía a los estados miembros con poblaciones de aves necrófagas, volver a dejar los cadáveres de ganado en el campo, bajo una serie de condicionantes. No obstante, esto no se ha llevado a cabo en el País Vasco, donde aún se retira el ganado muerto. Afortunadamente, en el Parque Natural de Urkiola hay ganado repartido por la mayor parte de su superficie, sobre todo en primavera y verano. Así, no es raro ver cabras en las paredes del Mugarra o en Untzillatx, ovejas en Anboto o en los karts de Aramotz, y vacas y yeguas en los pequeños prados de prácticamente cualquier rincón. La presencia de animales domésticos en lugares de difícil acceso conlleva que, ante la muerte por enfermedad o accidente de cualquier ejemplar, resulte difícil llegar a tiempo para retirar el cadáver y poco a poco se va flexibilizando el esfuerzo por acceder y llevarse los cuerpos.



📷 Ejemplar adulto de buitre. Iñigo Zuberogoitia



📷 Buitres disputándose la comida. Iñigo Zuberogoitia






Figura 1. Evolución de las parejas reproductoras (azul) de buitre leonado en el Parque Natural de Urkiola y datos sobre el número medio de pollos que inician la reproducción (productividad, rojo).

Pero el éxito y la perseverancia de la especie no se deben exclusivamente a una gran capacidad de adaptación y de reacción, sino que en buena medida son consecuencia de su longevidad e inteligencia. Aún no está claro cuántos años pueden vivir los buitres, pero pueden superar los 40 años. Así, algunos buitres que crían hoy en día en Urkiola podrían haber vivido aquellos años de fuerte persecución, luego años de bonanza, los últimos episodios de falta de alimento y nuevos cambios en la conducta de los humanos hacia ellos, atesorando experiencia y sabiduría que les ha permitido sobrevivir.

Ahora que los lectores pueden hacerse una idea un poco mejor de lo que ha pasado y pasa con los buitres de Urkiola, deben saber que, en la actualidad, contar con una población más o menos sana de buitres es un lujo que está desapareciendo rápidamente de nuestro mundo. Los últimos estudios revelan que los buitres están viendo reducidas drásticamente sus poblaciones. Así en India, Nepal y otros países asiáticos las poblaciones han caído

do más de un 90% debido al empleo de un medicamento de uso ganadero (el diclofenacol) que es letal cuando consumen cadáveres de ganado previamente tratado. La prohibición del producto llegó a tiempo para evitar la extinción de varias especies. Sin embargo, el mismo producto se ha comenzado a usar en África, con desastrosos resultados y, si no hay freno, podría extenderse por países europeos, incluido España. Esto, además, llega con el resurgir del uso de venenos que han puesto en jaque a los buitres de muchos países, sobre todo de África y del este de Europa. Con todo, las mejores poblaciones del mundo se recogen en unos pocos lugares, siendo la península Ibérica el último gran bastión de los buitres. Así pues, los buitres de Urkiola, que algunos podrían tildar de superabundantes, no son sino una parte de los pocos supervivientes de un mundo cada vez más complicado.

KAO LORA, SANDIA TA PRINTZESA

Izaro Ieregi
Maria Muriedas
Maider Gonzalo

Bilboko Berregingen Museoa,
ekainaren 14tik irailaren 1era
Irekiera: ekainak 14 / 19:00etan

Museo de Reproducciones de Bilbao,
del 14 de junio hasta el 1 de septiembre
Inauguración: 14 de junio / 19:00



ERTIBIL BIZKAIA 2019

IKUS-ARTEEN ERAKUSKETA IBILTARIA
MUESTRA ITINERANTE DE ARTES VISUALES

BILBAO

Rekalde Aretoa

Sala Rekalde

Maiatzaren 30etik uztailaren 7ra

Del 30 de mayo al 7 de julio

EA

Eskolondo Kultur Etxea

Casa de Cultura Eskolondo

Uztailaren 8tik 31ra

Del 8 al 31 de julio

BALMASEDA

Horkasitas Jauregia

Palacio Horkasitas

Abuztuaren 1etik irailaren 3ra

Del 1 de agosto al 3 de septiembre

ELORRIO

Iturri Kultur Etxea

Casa de Cultura Iturri

Irailaren 4tik 26ra

Del 4 al 26 de septiembre

ARRIGORRIAGA

Euskaldunberri erakusketa aretoa

Sala de exposiciones Euskaldunberri

Irailaren 27tik urriaren 23ra

Del 27 de septiembre al 23 de octubre

EIBAR

Portalea Kultur Etxea

Casa de Cultura Portalea

Urriaren 24tik azaroaren 17ra

Del 24 de octubre al 17 de noviembre

GETXO

Punta Begoña

Azaroaren 18tik abenduaren 29ra

Del 18 de noviembre al 29 de diciembre



Kirikiño bataloiako gudaria Intxortako frontean. Miguel Cañizal

KIRIKIÑO ETA MONTEJURRA

Gudariak eta erreketak Durangaldean

Onorengoko lerroetan gerra zibilean borrokan ekin zioten unitate militarrak biren gorabeherak ekarriko ditugu hona; hala eta guzti ere, ez unitateok bizi izan zituzten gertakari guztiak, Durangaldean burutu zituzten ekintzetara mugatuko gara-eta. Unitate biok dira Kirikiño batailoia, bata, eta Montejurrako tertzia, bestea. Jeltzalea, lehenengoa, tradizionalista bigarrena. Eusko Jaurlaritzaren aginduetara borroka eginez, Errepublikaren alde aritu zena Kirikiño, eta matxinatuen sostenguan ekin ziona Montejurra. Biak ala biak euskaldunez osatuak, nafarrez tertzia, eta batailoia, besteak beste, Durangaldeko mutil mordo batez.





Begoña tertzioko Durangoko erreketeak. Martín Gastañazatorre ("La camara en el macuto". 2018)

Montejurra eta Kirikiño

